

# Zein dira euskal kulturaren lehentasunak?

Xabier Gantzaraini irakurri eta entzun diogu oraintsu, *Zuloa* saiakeraren harira: “Arte frantsesa dago, arte espainola, arte alemana... baina euskal arterik ez dago. Zergatik? Guk ez dugulako estaturik. Eta estaturik ez dugunez, kulturarik ere ez dugu. Zeren gaur ezin baita esan euskal kultura euskaraz pentsatu, sortu eta gauzatutakoa denik euskaldunak aztoratu barik. Euskal kultura frantsesez pentsatu, sortu eta gauzatutakoa ere bada” argudiatuko dizutelako. Estaturik ez duenak, ez duelako arterik, ez duelako kulturarik. Guk ez dugu estaturik baina izan ditzakegu estatu ikuspegia Euskal Herri osorako eta Herri ikuspegia herriz herrirako. Azken hamar urteotan, “Itun-nazionala, estatu ituna, itun-politikoak, akordio sozialak, kulturagintzaren autodeterminazioa” bezalako proposamenak errepikatu ditugu topaketa zein idatzizko artikulu andanatan. Egitura noiz lortuko zain egon gabe, izan genezake estatu ikuspegia: elkartu gaitzen kulturaren ekosistema osatzen dugun Euskal Herri osoko eragileak gure kulturarentzat estrategikoa zer den proposatu, eztabaidatu, adostu eta gauzatzeko. Saretu gaitzen, batzuetan auzolanean, bestetan elkarlanean, sinergian beti. Har ditzagun premiazko



Gotzon Barandiaran Arteaga

IDAZLEA  
@gotzonbarandi

Elkartu gaitzen kulturaren ekosistema osatzen dugun Euskal Herri osoko eragileak gure kulturarentzat estrategikoa zer den proposatu, eztabaidatu, adostu eta gauzatzeko

neurriak, alarmek urteak daroatzaite-eta, piztuta. Euskararen herria hiru administrazioetan zatituta egotea da euskal kultura normalizatzeko dugun

oztoporik gainditzeko bat, bizi-erapenerako ezinbestekoa da Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoako, Nafarroa Garaiko eta EAeko kulturagintza artikulatzea. Hori da estatu ikuspegia izatea, Luhuson egindakoak Oionen eragina duela sinistea. Izan dezagun Herri ikuspegia hasi txikienetik eta hirietara. Abiarazi ditzagun Kulturbilguneak herriz guztietan, batu gaitzen herriz herri kulturaren ekosistema osatzen dugun tokian tokiko eragile guztiak. Eraitza oso onak ematen ari diren adibideak ditugu. 2018an “zein dira gaur egun gure kulturagintzak dituen premiak?”, galdetzen diot neure buruari. Zaleak sortzea. Ez ezerezetik, dagokeenetik baino. Gure arazoa euskaldunak euren kulturara ekartzea da. Sortzailak izango diren zaleak behar ditu euskal kulturagintzak, amateurrak eta profesionalak. Antolatzaileak izango diren zaleak: herri ekimenetan edota erakunde publikoetan arituko direnak. Kulturagintzaren industriari emanak biziko diren profesionalak bihurtuko direnak, kultur kazetaritza jorratuko duten zaleak, transmisioa bermatuko dutenak. Bestela ez dugu egundo kultur sistema osasuntsurik izango, bestela prekariedade gaitz kroniko eta sendaezina bihurtuko zaigu. ■

## #BEHINGOZ

EUSKARA  
OFIZIALA  
NAFARROA  
OSOAN

MOBILIZAZIOA

🕒

Urriak 27. 17:00  
Iruñea

📍

Irteera puntuak

1  
Gazteluko plaza

📍

2  
Media Luna

📍

3  
Iurrana - Abejeras

📍

Amalera

Autobus-geltokiko  
belardia